

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko apirilaren 18an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen premiaz :

AHMER-SOS ARRAZAKERIAREN 2023KO HITZARMENAREN JUSTIFIKAZIOA ETA 2024KO DIRULAGUNTZA ONARTzea

Hernaniko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko otsailaren 3an egindako bilkuran, **AMHER-SOS Arrazakeria** elkarte eta Udalaren arteko ordura arteko hitzarmena berritzea erabaki zuen, 2022-2025 epealdirako.

Aipatu hitzarmenaren xedea zera da: kulturartekotasuna eta jatorri ezberdineko jendearen eskubide berdintasuna bermatzea, eta horrez gain, hitzarmena berritzeko erabakiarekin, Florida 28an kokatuta dagoen Kulturarteko Plaza Feminista eraikineko bi gela erabiltzeko proposamena jaso nahi izan zen, elkarteari bideratutako zuzeneko dirulaguntzaren kopurua egokituz: 72.000 euro urtean, lau epetan ordaintzeko: otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa hasieran.

Hitzarmenaren 17. klausulak dioenarekin bat, AMHER-SOS Arrazakeria elkarteak garaiz eta dagokion epean aurkeztu du 2023ko ekitaldiko dirulaguntza zuzitzeko dokumentazioa, 2024ko otsailaren 28 baino lehen, hain zuzen. Memoria, xehetasunez adieraziz urtean zehar egindako eta diruz lagundutako jarduerak; balantze ekonomikoa, eta bestelako ziurtagiriak.

Kontuan hartu da Herritarrentzako Zerbitzuen batzordeak 2024ko apirilaren 18 ko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

Horiek horrela, Gobernu Batzarrak **AHO BATEZ**

- 1.- 2023. urteari dagokion dirulaguntza justifikatuztat ematea eta hitzarmena berrestea.
- 2.- Hitzarmena lau urterako denez, 2024. urteari dagozkion ordainketak bideratzea, aurrekontuko partida honetatik 1 02.481.03.231.02 2024 (4568) DIRULAGUNTZA: AMHER.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2024ko apirilaren 18an

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKU565b621a-a64d-4ef2-a2f6-e001eefe1e24**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>